

2024KO MAIATZAREN 3A

# begoñazpi astekaria



**KIROL ASTEA**

**OSASUNA, EMOZIOAK ETA**

# **BALOREAK**

**ATLETISMOA, ESKU-PILOTA, ERRUGBIA, XAKEA,  
KIROL EGOKITUA, BERBALDIK... BEGOÑAZPI  
IKASTOLA, KIROL ASTEARI EKINEZ.**



## KIROL ASTEA!

Kirola osasuna da, emozio eta balore ugariren jarduera, kidetasuna, errespetua, irabazten eta galtzen jakitea. Kirola, bizitza da. Egun honeetan, Kirol Astea bizi izan dogu Begoñazpi Ikastolan. Bestiak beste, hainbat diziplina eta txapelketekaz gozatu dogu, atletismo, esku-pilota, errugbi, xake, kirol egokitu eta hitzaldi interesgarriez. Begoñazpi Ikastolan, kirola gorputz-hezkuntza baino askoz gehiago da.



## Jazarpenaren aurkako konpromisoa

Bullying-aren aurkako Nazioarteko Egunean, Begoñazpi Ikastolak alkarbizitzagaz dogun konpromisoa gogoratu gura detsuegu. Une oro. Orain dirala bi urte, TVEko albistegietan TeleNortek holan jaso eban gure eredu.



Begoñazpi Ikastola, Bilbao

1

## Nazioarteko Dantza Eguna

Nazioarteko Dantza Egunean, Andoni Aresti Dantza Eskolaren eskutik, Begoñazpi Ikastolako Ballet Eskolaren bideo laburra dozue ikusgai. Diziplinak, zalantza barik, indartu egiten dau txikien prestakuntza akademiko, kirol eta artistikoa.



## Artxandara familian

Begoñazpi Ikastola familia handia da. Zein polita guraso eta txikiek Artxandara egindako urteera! Zein garrantzitsuak zarien, sendiok, seme-alaben ikasketetarako! Eskerrik asko.

## Koloreak eta jolasak

Modu dibertigarrian, urte biko umeak koloreak ikasten ari dira. Garrantzitsua da tresna ludikoen bidez, autonomia hartzea (pertsonala, eragilea eta kognitiboa). Jolasa edota jokia balitz bezala ikastea.

